

Gure produktua ekoizteko makineria oso espezifikoa beharko dugu. Baliabide horiek ez ditugunez, bestelako enpresa bateri eskatu behako genioke gure produktua sortzeko. Enpresa baten adibide bat Formex enpresa da. Bartzelonan kokatua dagoen enpresa bat da eta gailetak sortzeko makineria espezifikoa saltzen dute.

Gure enpresa aurrera eramateko beste funtsezko jarduera bat, webgune bat aurrera eramatea da. Jarduera hau, guk egin genezake edo beste enpresa bateri eskatu webgune osoa montatzeko. Honek, hainbat arazo zor ditzake, informatikako arloan ez baigara adituak eta edozein arazoren aurrean kanpoko laguntza eskatu beharko dugu. Gainera, online salmentak egiteko kapazak izan beharko gara, hau da, ordainketak kudeatzea eta eskaintzak bezeroari iristea konprobatzea. Hortaz aparte, webgunean, galderen edo iritzien tal bat jarri beharko genuke gure bezeroen kexak edota dudak erantzuteko eta zerbitzua hobetzeko.

Bezeroen eskaintzak kudeatzeko, Correos, FedEx edota Amazon moduko enpresekin lan egingo genuke. Hiru enpresa hauek, Espaina maila osoan lan egiten dute eta horietako batzuk nazioartean ere.

Erabili dezakegun beste baliabide bat, sare sozialak dira. Herraminta horrekin, bezero asko eskura ditzakegu, baina aldi berean jende gehiago behrako genuke sare sozialetako kontu hori kudeatzeko. Egia da, ez dela lan zaila, baina 4 izanda taldean eskertuko litzake karga pixkat kentzea.